

Eskola Txikietako Lehendakari Iraunkorra

EZAUGARRIAK:

- Izaera batzailea.
- Harreman publikoak bideratzeko gutxieneko gaitasuna.
- Batzarrak gidatzen aritua.
- Hezkuntza mundua ezagutzen badu, hobe.

BALDINTZAK:

- Euskal hiztuna.
- Gurasoa.
- Lantokitik gutxieneko mugikortasuna (bileretarako edo).
- Lanerako borondatea.
- Eskola Txikien proiektuan sinestea.
- Herri txikian bizimodua egitea.
- Epe ertainean (10 urte +/-) ardura honi aurre egiteko prestutasuna.

BETEKIZUNAK:

- Eskola Txikien Koordinadoraz arduratuko diren hiru herrietako ordezkariekin harreman zuzena eta etenik gabea izan.
- Eskola Txikien ordezkariak egiten dituzten Batzar Orokorretan parte hartu.
- BAIKARA koordinadorak Eskola Txikiei buruz egiten dituen bileretan, hauen ordezkari gisara aritu nola Gipuzkoa mailan hala Euskal Herrikoan.
- Ekitaldi publikoetan (Eskola Txikien festa, prentsaurrekoak, adierazpenak, ...) Eskola Txikien Lehendakariari dagokion lekua eta eginkizunak bete.
- Administrazioarekin egiten diren bileretan eta bestelako harremanetan Eskola Txikiak ordezkatu.
- Eskola Txikien proiektua jorratu, sakondu eta geroan etor dakiekeenaren aurreikuspena egiten saiatu (azterketa soziologikoak, inkestak, gogoetak ...) egokien deritzon bitarteko eta kideekin.
- Eskola Txikien inguru sozialean eragile diren beste erakunde eta taldeekin (Udalak, sindikatuak ...) harremanak sortu eta bideratu.
- Batzar Orokorrek erabakitzen duena bete eta betearazi.
- Eskola Txikien Koordinakundearen partaide diren guraso elkarteak, bai publikoki eta bai barne harremanetan, elkarlotuko dituen uztaiak izaten saiatu.

OHARRA: bilerarako pentsatuta ekarri proposamen honi egiteko aldaketa nahiz eranskinak eta kargua bete lezakeen pertsonaren izena.

BATZORDEA BERRITZEKO PROPOSAMENA

Goikoak dira lehendakari iraunkorra izateko onartu ziren baldintzak eta lan esparruak. Sei urte hauen balorazioa eginez, koordinakundeak orain arte izan duen funtzionamenduan hobekuntza batzuk plantetu daitezke iruditzen zaigu. Momentu honetan taldeka funtzionatzearen beharra ikusten dugu. Batzordea indartu behar dugu, bai kopuruz, bai lanaren banaketaz eta baita biltzeko maiztasunaz ere.

Planteamendu berri honekin, koordinakundeko antolaketan aldaketa nabari bat proposatzen dugu.

Koordinakundeko Batzordean, orain arte hiru herrik eta lehendakariak parte hartzen zuten. Proposamen honekin, Batzordean 5 herri, lehendakaria eta lehendakari ordea, hau da, denera 7 pertsona.

Batzordearen osaketa zehatza:

- Behean agertzen diren bost eskualde bakoitzeko arduradun bat (bi urtez behin herri aldaketa izango da).
- Lehendakaria (5 urtetarako)
- Lehendakari ordea (5 urtetarako)

5 eskualdeak hauek lirarteke:

<u>Yon</u> <u>1</u>	<u>Iñigo</u> <u>2</u>	<u>Miren</u> <u>3</u>	<u>Esther</u> <u>4</u>	<u>Lorea</u> <u>5</u>
Angiozar	Aizarna	Aginaga	Altzo	Aduna
Elgeta	Aizarnazabal	Andatza	Abaltzizketa	Albiztur
Ganiria	Arroa	Zubieta	Ikaztegieta	Alkiza
Zerain	Oikia	Igeldo	Lizartza	Zizurkil
Olaberria	Itziar(ez da eskola oraindik)	Ereñotzu	Berrobi	Bidegoian errezil

Batzordearen arduren banaketa:

1. Idazkaria: *ardura hau eskualde batek hartuko luke*
Koordinakundeko bilera deiak prestatu eta bidali.
Koordinakundeko aktak jaso eta bidali.
Batzordeko aktak jaso.
2. Diruzaina: *ardura hau beste eskualde batek hartuko luke*
Kontuen jarraipena.
Dirulaguntzak eskatu eta justifikatu.
Kuotak kobratu.
Egin beharreko abonoak (guraso eskolak, tfnoa, bidaiak,..)

3. Festa arduraduna: *ardura hau festa egiten den eskualdek hartuko du.*

Antolaketa eta koordinazioa.

Hurrengo festa antolatzaileari traasmisioa: dokumentazioa, lagunduko duen infromazioa,..

Gonbidapenak finkatu.

Festaren helburuak, pautak,...jaso eta pasa.

4. Lehendakaria eta lehendakari ordea:

Oso positibo, egoki eta lagungarri baloratzen dugu koordinakundeko ardura osoa bi pertsonen artean eramatea. Lehendakaria eta lehendakari ordea.

Lehendakariaz beste bileretan hitz egin dugu eta orain urte bete onartu ere, Albizturgo Brixiz izatea.

Proposamen berria lehendakari ordea Igeldoko Izaskun izatea.

Bi hauen lana beste batzuen artean honako hau izango da:

- Ardura zuzena.
- Korreoa irakurri.
- Batzordeko arduradunekin harreman zuzena eta egindakoari oniritzia eman.
- Hezkuntza administrazioarekin, udalekin, herrialdekin, landa garapenarekin,...harremana edota koordinazioa egitea.
- Kotseiluarekin harremana.
- Dinamizatzailea.
- Komunikabideekin harremana.
- Lokala martxan jartzea eta mantentzea.
-
- Eta gehien bat disponibildade handia.

Ikaztegietan, 2007ko ekainean